

Miranda

(Bianda)



GARMENDIA ESKISABEL familia

BIANDA baserria Elbarrena auzoan kokatua dago. Bianda Lazkaomendiko baserria da.

Bere inguruko baso eta zelaien izenen artean daukagu Goiko soroa, Itxane, Beheko soroa, Itxaspi, Barruti, Nausasti, Soroluze, Artaleki, Mesere, Sastie, Etxe azpi, Erdiko soro, Soro barrena, Txara.

1931n ezkondu ziren, abenduaren 28an, bertako semea Joxe Migel Garmendia eta Fermina Eskisabel Zaldibiko *Urtesabel* baserriko alaba. Etxean gurasoetako bat bizi zen eta hiru osaba-izeba. Goi-zeko seietan ezkondu, etxean egin zuten arrantxoia eta handik Bilbora joan ziren ezkontza-bidaian.

Hiru seme-alaba izan zituzten: Inazio, Karmen eta Maria Dolores.

Bizimodua baserritik atera ohi zuten. Baserrian baziren lau-bost behi. Etxerako baratza ere bertan zuten. Eta Ordiziako ferian saltzen zituzten gaztainak eta arrautzak. Inazio hogeita hamar urterekin hasi zen Fabrika Handian, 1965etik aurrera.

Informazio emailea: Karmen Garmendia



GARMENDIA ESKISABEL familia
Fermina eta Joxe Migel.



GARMENDIA ESKISABEL familia
Joan Agirre, Inazio, Maria Dolores, Karmen eta Mari Tere Gorostidi.



GARMENDIA ESKISABEL familia